# EUSKARABIDEAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2018 URTERAKO

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2018

## A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna gauzatze aldera.

## A) OBJETO:

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera del Departamento de Relaciones Ciudadanas e Institucionales del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne.

## B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Euskaltzaindia sortu zuten erakundeetako bat. Euskaltzaindia euskara garatzeko sortu zen.

2. Alde biek, Euskarabideak eta Euskaltzaindiak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

## B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra, fue en 1918 una de las instituciones fundadoras de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, que se creó para el desarrollo del euskera.
2. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y la Real Acade-mia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este Convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

## C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 573/1976 Dekretua, otsailaren 26koa. Dekretu horren bidez ezagutzen zaio Euskaltzain-diari Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia izendapena. 272/2000 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa. Dekretu horren bidez aldatzen dira Euskaltzaindiaren estatu-tuak.

2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen da zeintzuk diren foru legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurapenari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu irizpideen arabera; Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikoarekin bat.
   Halaber, artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen du eus-kalkiek errespetu eta babes berezia jasoko dutela Nafarroan.

3. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 foru lege berean, Euskaltzaindiari dagokionez, 3. artikuluko 3. idatz-zatian esaten da erakunde aholku-emaile ofiziala izanen dela, Nafarroan euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. 8. artikuluko 2. idatz-zatian arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gai-etan izan behar duen jarduera, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

4. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

## C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. El Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca su denomina-ción de Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, así como en el Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que establece en su artículo 1.2 los objetivos esenciales de la misma relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra. También recoge en su artículo 1.3 que las variedades del euskera serán objeto de especial respeto y protección en Navarra.

3. La propia Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, en lo que se refiere a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, señala en su artículo 3.3, el carácter de Institución consultiva oficial a efectos de establecimiento de normas lingüísticas del euskera en Navarra. Y en el artículo 8.2, regula la actuación de la Real Academia de la Lengua Vasca en materia de toponimia como Institución emisora de informes relativos a aquella.

4. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

5. 130/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena. Eta, zehazkiago, 3. artikulua, non Euskarabidearen eskumenak eta eginkizunak ezartzen baitira, eta, horien artean, honako hau: s) Euskaltzaindia-rekin hitzarmenak sinatzeko proposamena prestatu eta haiek izenpetzea, baita akordio horien ondoriozko jarduketen jarraipena egitea ere.

5. El Decreto Foral 130/2015, de 28 de agosto, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Y, más concretamente, el artículo 3, en el que se establecen las competencias y funciones, y entre las que figura la siguiente: s) La propuesta y firma de acuerdos con Euskaltzaindia/ Real Academia de la Lengua Vasca, además de realizar el seguimiento de las actuaciones derivadas de dichos acuerdos.

**D) LANKIDETZA HITZARMENAREN IRAUPENA.**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2018ko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagungarriak diren gastuak 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte sortutakoak eta ordainduta-koak izanen dira.

**D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN.**

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2018.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018.

**E) AURREKONTUA**

2018rako aurrekontua 169.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren" Euskaltzaindiarekiko hitzarmena aginduzko txostenetarako eta aholkularitzarako" izeneko B30000 B3000 4816 334100 kontu-sailaren kargura.

**E) PRESUPUESTO**

El presupuesto para el año 2018 será de 169.000 euros, con cargo a la partida B30000 B3000 4816 334100 denominada "Acuerdo con Euskal-tzaindia Acuerdo con Euskal-tzaindia para informes preceptivos y asesora-miento" de los Presupuestos Genera-les de Navarra de 2018.

**F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK**

Nafarroan, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak batzorde akadem-ikoen eta egiturazkoen bidez eginen ditu bere lanak, hain zuzen ere.

2018ko hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza emanen du jarraian ageri diren egitasmoendako. Hitzarmen honen eranskinean egitasmo horien aurrekontua zehazten da.

**F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR**

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia desarrollará su labor a través de las distintas Comisiones (Académicas y Estructurales) en todo lo referido al euskera en Navarra.

El Gobierno de Navarra subvencionará los siguientes trabajos a desarrollar por Euskaltzaindia durante el año 2018, de acuerdo con los presupuestos que se detallan en el anexo al presente convenio:

**Euskal Corpus Onomastiko egitasmoa (ECO).** Gastuen aurrekontua: 66.192,61 euro.

**Onomastika eta Toponimia lanak.** Gastuen aurrekontua: 17.362,02 euro.

Hitzarmen honen C.3 atalak biltzen duenez, Euskaltzaindia da euskararen hizkuntza arauak eta Nafarroako toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakundea. Euskaltzaindiak txostenak eginen ditu Nafarroatik onomastikaren eta toponimiaren arloan iristen zaizkion kontsultei buruz.

Bi erakundeen aburuz, txosten horien kostua aipatutako aurrekontuen barnean da.

**"La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711 - 929)" liburuaren argitalpena.** Gastuen aurrekontua 10.000,00 euro.

**Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzea egitasmoa.** Gastuen aurrekontua: 55.445,37 euro.

**Euskaltzaindiaren mendeurrena dela-eta antolatutako ekimenak.** Gastuen aurrekontua: 20.000,00 euro.

G ) JARRAIPEN BATZORDEA

**Jarraipen Batzordea**:
Hitzarmen hau sinatzen den unean jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabidearen ordezkariak eta Euskaltzaindiaren ordezkariak.

**Trabajo sobre el Corpus Onomástico Vasco (ECO).** Presu-puesto de gastos: 66.192,61 euros.

**Trabajos de Onomástica y Toponimia.** Presupuesto de gastos: 17.362,02 euros.

El apartado C.3 de este convenio hace referencia a que la institución encargada de realizar los informes referentes a normas lingüísticas en lengua vasca y toponimia de Navarra es la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. Esta institución realizará los informes sobre consultas que se remitan desde Navarra relativas a cuestiones del ámbito de la onomástica y de la toponimia.

Ambas instituciones entienden que los costes de confección de dichos informes vienen incluidos en los presupuestos de gastos antes citados.

**Edición del libro "La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711 - 929)".** Presupuesto de gastos: 10.000,00 euros.

**Proyecto de estudio del léxico de la obra de Joaquín Lizarraga.** Presupuesto de gastos: 55.445,37 euros.

**Actividades organizadas con motivo de centenario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.** Presupuesto de gastos: 20.000,00 euros.

G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

**Comisión de Seguimiento**:
En el momento de la firma de este Convenio se formará una Comisión de Seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y representantes de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Euskarabidearen izenean:

- Euskarabideko zuzendari-kudeatzailea edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeburua izanen da.
- Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordekidea izanen da.

Euskaltzaindiaren izenean:

- Euskaltzainburua, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

- Euskaltzaindiaren diruzaina, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

- Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkaria edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

Jarraipen Batzordea gutxienez urtean bitan bilduko da, lehenbizikoa, lankidetza hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, Euskaltzaindiak urteko lan programa aurkeztuko du, Hitzarmen honen F idatzzatian zehazturikoaren arabera. Bigarren bilkura urte bukaeran eginen da, eta bertan urteko memoria aurkeztuko du Euskaltzaindiak, onetsia izan dadin.

Jarraipen batzordearen bilkurak hitzarmena sinatu duten erakundeen zeinahi egoitzatan egiten ahalko dira.

Por parte de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera:

- El director-gerente de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.
- El director del Servicio de Recursos Lingüísticos, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.
- La directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como vocal.

Por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia:

- El Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.
- El Tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzain-dia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.
- El Delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos dos veces al año, una primera, a la firma del presente Convenio de Colaboración, donde la Academia presentará su Programa Anual de Trabajo a realizar, según lo que se especifica en el apartado F de este Convenio, y una segunda reunión que se celebrará al final de año, donde se presentará la Memoria Anual para su aprobación.

Las reuniones de la Comisión de Seguimiento podrán celebrarse en cualquiera de las sedes de los organismos firmantes del Convenio.

## H) DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntza bi epetan ordainduko da. Lehenbizikoa uztailaren 31a baino lehen, aldez aurretik lehen seihileko gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta, eta bigarren zatia abenduaren 31 baino lehen, bigarren seihileko gastuak justifikatu ondotik. Lehen eta bigarren ordainketen kopuruak epealdi bakoitzean justifikatutako kopuruetara egokituko dira, bi ordainketen batuketak emandako urteko diru-laguntzaren erabateko zenbatekoa gainditu gabe.

## H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en dos plazos. El primero antes del 31 de julio, previa justificación de los gastos del primer semestre, y el segundo con fecha anterior al 31 de diciembre, tras la justificación de los gastos correspondientes al segundo semestre. El importe a abonar en cada uno de los dos pagos (primero y segundo) dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada en cada periodo, sin que la suma de ambos pagos pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

## I) DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATU

Emanen den diru-laguntza Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

a) Emandako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskara-bidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, behar diren bide administratiboak erabiliz, 2018ko uztailaren 17a baino lehen eta azaroaren 30a baino lehen, epe bakoitzari dagokion ordainketa egin ahal izateko.

b) Langile gastuak justifikatzeko, oroitidazki bat aurkeztuko da, non Euskaltzaindiko langileek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko baitira.

Euskaltzaindiaren sorreraren mendeurrena dela-eta egiten diren jarduketei lotutako langile gastuei dagokienez, jarduketa horiek antolatzea edo kudeatzea eginkizun duten langileen gastuak izanen dira diruz lagunduko direnak; hain zuzen ere, gastu horien % 25 lagunduko da diruz.

## I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas, antes del 17 de julio y del 30 de noviembre de 2018 para proceder al abono respectivo.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una memoria, en la que se recogerá la relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Euskaltzaindia, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

En el caso de los gastos de personal relativos a las actuaciones que se lleven a cabo con motivo del centenario de creación de la Real Academia de la Lengua Vasca, los gastos de personal subvencionables serán únicamente aquellos relativos al personal específicamente dedicado a la organización o gestión de dichas actuaciones, en un porcentaje del 25 %

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira.

Langile gastuak ez direnei dagokienez, Euskaltzaindiaren sorreraren mendeurrena dela-eta egiten diren jarduketei lotutako gastuen %25 lagunduko da diruz.

d)Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta diru-laguntza kobratu ahal izateko, Euskaltzaindiak 2018ko azaroaren 30a baino lehen egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

**J) GARDENTASUNA**

**1.-** Entitate onuradunak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako gardentasuna bete beharko du (betebehar hori irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan arautu zen) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura diru-laguntzak eskuratzen dituenean eta ondoko bi egoerak ematen direnean:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa urteko 20.000 eurotik gorakoa izatea.

b) Emandako zenbatekoak entitate onuradunaren negozio kopuruaren edo urteko aurrekontuaren ehuneko 20a gainditzea.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las fotocopias de las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos.

En el caso de los gastos distintos de los de personal relativos a las actuaciones que se lleven a cabo con motivo del centenario de creación de la Real Academia de la Lengua Vasca, serán subvencionables los gastos realizados, en un porcentaje del 25%.

d) Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Euskaltzaindia presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 30 de noviembre de 2018, una Memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

**J) TRANSPARENCIA**

**1.-** Las entidades beneficiarias estarán sujetas a la obligación de transparencia establecida en la disposición adicional novena de la Ley Foral 11/2012, de 21 de junio, de la Transparencia y del Gobierno Abierto, y regulada por el Decreto Foral 59/2013, de 11 de septiembre, cuando perciban subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de Navarra y concurran estas dos circunstancias:

a) Que el importe de la subvención concedida supere los 20.000 euros anuales.

b) Que el importe concedido supere el 20 por ciento de la cifra de negocio o del presupuesto anual de la entidad beneficiaria.

**2.-** Aurreko atalean ezarri diren kopuru mugak gainditzen diren edo ez aintzat hartzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo bere erakunde publikoek urte naturalean emandako diru-laguntzen kopuru guztia gehituko da. Diru-laguntza hainbat urtekotan egiten den kasuetan, ondorio hauetarako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emandako kopurua kontatuko da, eta ez batura osotara. Negozio kopurua edo erreferentziazko urteko aurrekontua, ondoko magnitudeen artean zenbateko txikiena duena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio kopurua edo gauzaturiko aurrekontua.

b) Hala badagokio, diru-laguntza ematen duen entitatearen organo eskumendunak onetsitako negozio kopurua edo aurrekontua.

**3.-** Bi gorabehera hauek batera dituen entitate onuradunak, modu telematikoan aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta, jakinarazpena jaso edo, kasua bada, diru-laguntza eman izanaren ebazpena argitaratzeko egunetik hasita hilabeteko epean, jarraian zerrendatzen den informazioa:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kideen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptutan banatuta. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan bildutakoa izanen da.

**2.-** A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio o presupuesto anual de referencia, será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio o presupuesto ejecutado del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio o presupuesto aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

**3.-** Las entidades beneficiarias en las que concurran estas dos circunstancias, deberán presentar de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, en el plazo de un mes contado desde la notificación o, en su caso, fecha de publicación de la resolución de concesión de la subvención, la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será de las que figuren en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) Kargudun bakoitzaren dedikazio araubidea gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetarako.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección, de cada uno de sus cargos.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

Aurreko atalean deskribatzen diren gorabeherak ematen ez direlako, entitatea ez bada gardentasun betebeharraren mendeko, aitorpena aurkeztu beharko du, hori adieraziz.

En el caso de que la entidad no esté sujeta a la obligación de transparencia al no concurrir las circunstancias descritas en el apartado anterior, deberá presentarse una declaración en tal sentido.

Entitate onuradunak emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urte betean zehar. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganda, argitaratzearen ardura duen unitateak ofizioz erretiratuko du eta, ez balu hala egiten, entitate onuradunak eska dezake erretira dadila eta, gehienez ere, eskabidea jasotzen den unetik hasita hilabeteko epean eginen da.

La información facilitada por las entidades beneficiarias será publicada en el Portal de Gobierno Abierto de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y será accesible durante 1 año desde su publicación, con el límite de 15 meses desde su entrada en el órgano gestor de la información. Transcurrido dicho plazo, la unidad responsable de su publicación la retirará de oficio, y si no lo hiciera, la entidad beneficiaria podrá solicitar su retirada, que deberá producirse en el plazo máximo de un mes desde la solicitud.

Entitateak, segidako diru-laguntzen onuraduna izan bada jardunaldi berean, ez du informazioa berretsi beharko diru-laguntza bakoitzaren kasuan, salbu eta hasieran eman ziren datuak aldatzen badira.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente.

Onuradunak informazioa emateko duen betebeharra ez betetzeagatik izan daitezkeen balizko ondorio zigortzaileak galarazi gabe, ez betetze horrek emandako diru-laguntza ordaintzea galaraziko du, aurrerakinak barne eta, kasua bada, emandako kopuruak itzultzea ekarriko du, Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen 35.1 c) artikuluan

Sin perjuicio de las eventuales consecuencias sancionadoras que se pudieran derivar del incumplimiento de las obligaciones de información por el beneficiario, este incumplimiento impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral de Subvenciones

## K) DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, diru-laguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikuluak.

- III. titulua, diru-laguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikuluak. II. kapitulua, finantza-kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikuluak.

- IV. titulua, arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua, arau-hausteen gainean, 42. artikulua. II. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikuluak .

## K) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.

- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.

- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

## L) DIRU-LAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, diru-laguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

## L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Iruñean, 2018ko ekainaren 21ean
En Pamplona, a 21 de junio de 2018

| | |
|---|---|
| HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA / CONSEJERA DE RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES | EUSKALTZAINBURUA / EL PRESIDENTE DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA |
| Ana Ollo Hualde | Andrés Urrutia Badiola |

**EUSKARABIDEA ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2018)**

| 2018ko zereginak | Guztira | % |
|---|---|---|
| **Egitasmoa: Euskal Corpus Onomastikoa (ECO)**<br>Gastuen aurrekontua:<br><br>GASTU ZUZENAK<br><br>- Pertsonal gastuak<br>- Kanpoko lanak<br>- Egitasmoaren zuzendaritza | **66.192,61**<br><br><br><br><br>13.381,56<br>48.878,88<br>3.932,17 | **%39** |
| **Onomastika eta Toponimia lanak**<br>Gastuen aurrekontua:<br><br>GASTU ZUZENAK<br><br>- Pertsonal gastuak<br>- Txostenak, lan-enkarguak, bilerak eta bidaia gastuak | **17.362,02**<br><br><br><br><br>13.345,46<br>4.016,56 | **%10** |
| **Argitalpena: La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711-929)**<br>Gastuen aurrekontua:<br><br>GASTU ZUZENAK<br><br>- Pertsonal gastuak<br>- Txostenak, lan-enkarguak, bilerak eta bidaia gastuak | **10.000,00**<br><br><br><br><br>1.818,72<br>8.181,28 | **%6** |
| **Egitasmoa: Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa**<br>Gastuen aurrekontua:<br><br>GASTU ZUZENAK<br><br>- Pertsonal gastuak<br>- Kanpoko lanak<br>- Egitasmoaren zuzendaritza | **55.445,37**<br><br><br><br><br>12.245,35<br>35.574,00<br>7.626,03 | **%33** |
| **Euskaltzaindiaren MENDEURRENA**<br>Gastuen aurrekontua:<br><br>GASTU ZUZENAK<br><br>- Pertsonal gastuak<br>- Kanpoko lanak | **20.000,00**<br><br><br><br><br>14.772,36<br>5.227,64 | **%12** |

| **2018ko diru-laguntza** | **169.000,00** | **%100** |
|---|---|---|

## CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EUSKARABIDEA Y EUSKALTZAINDIA (2018)

| Proyectos para 2018 | Total | % |
|---|---|---|
| **Proyecto: Corpus Onomástico Vasco (ECO)** | **66.192,61** | **%39** |
| Presupuesto de gastos: | | |
| GASTOS DIRECTOS | | |
| - Gastos de personal | 13.381,56 | |
| - Trabajos externos | 48.878,88 | |
| - Dirección del proyecto | 3.932,17 | |
| **Trabajos de Onomástica y Toponimia** | **17.362,02** | **%10** |
| Presupuesto de gastos: | | |
| GASTOS DIRECTOS | | |
| - Gastos de personal | 13.345,46 | |
| - Informes, trabajos externos, reuniones y gastos de viaje | 4.016,56 | |
| **Publicación: La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711-929)** | **10.000,00** | **%6** |
| Presupuesto de gastos: | | |
| GASTOS DIRECTOS | | |
| - Gastos de personal | 1.818,72 | |
| - Trabajos externos | 8.181,28 | |
| **Proyecto: Estudio del léxico de Joaquín Lizarraga** | **55.445,37** | **%33** |
| Presupuesto de gastos: | | |
| GASTOS DIRECTOS | | |
| - Gastos de personal | 12.245,35 | |
| - Trabajos externos | 35.574,00 | |
| - Dirección del proyecto | 7.626,03 | |
| **CENTENARIO de Euskaltzaindia** | **20.000,00** | **%12** |
| Presupuesto de gastos: | | |
| GASTOS DIRECTOS | | |
| - Gastos de personal | 14.772,36 | |
| - Trabajos externos | 5.227,64 | |
| **Subvención 2018** | **169.000,00** | **%100** |